



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2018ko maiatzaren 31n Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta gainontzeko hamar korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- 2018ko apirilaren 12an buruturiko saioari dagokion akta onartzea.

2.- 2018ko aurrekontu aldaketa.

Indarrean dagoen 2018ko Udal Aurrekontuaren barnean, kredituak aldatzeko 1. espedientea onartzea.

Erabaki hau jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez ahal daitezen; horrelakorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betirako onartutzat emango dela zehaztuz, erabaki gehigarririk gabe.

3.- HAPOa idazteko herritarren parte-hartze programa onartzea.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aho bateko adostasunarekin, jarraian jasotzen den HAPOa idazteko herritarren parte hartze programa onartu du.

4.- G.F.A.ren eta Zestoako Udalaren arteko hitzarmena etxez-etxeke zerbitzua finantzatzeko.

Ongizate batzordean aztertzekotan gelditu dira.

5.- Galderak eta erreguak

Mikelek hartu du hitza eta aipatu du, 2006an udal planeamendua aldatzeko egin zen dokumentua orain fakturatu dela. Berak Gobernu Batzordean bere kontrako iritzia adierazi zuen eta udal batzar honetan ere bere kontrako iritzia agertu du. Orduan udal arkitekto aholkularia zenak eta dokumentua idatzi zuenak, urte asko egin dituala udalean adierazi du eta hainbat eta hainbat obra eta proiekturen lanak jaso dituela. Orain pasa diren urteak pasa eta ezertarako balio ez zuen dokumentu bat ordaintzea ez dela zilegi adierazi du. Faktura hori ez litzatekeela ordaindu behar errepikatu du, eta gaineratu du Gorka Unanue orduan alkate zegoela eta gaur egun udal gobernua ez balego faktura hori ez zela aurkeztu ere egingo.

Gorkak erantzun du, gai hau Gobernu Batzordean hitz egindakoa dela eta bere iritzia egin den lan bat ordaindu beharra dagoela da.

Mikelek galdegin du ea zergatik 12 urtean ez den fakturarik aurkeztu.



ZESTOAKO UDALA

Alkateak erantzun du, hasitako lanak jarraipena izango zuelakoan egon dela gaia horrela. Eta azkenean HAPO berria idazteko lehiaketan aurkeztu ez denez, horregatik fakturatu dela lehen eginikoa.

Mikelek erantzun du, lanak balio balu gaitz erdi izango zela, baina ez dela gaur egun erabilgarria.

Gorkak erantzun du, fakturazio horretan barneratua dagoela ingurumen arloan eginiko azterketa lana.

Ondoren Mikelek galdegin du ea Aizarnan kamioiekin zer gertatzen den, berak prentsan irakurri duela eta.

Alkateak erantzun du, egur asko dagoela ateratzeko Aizarna aldean eta trailerrak hasi direla sarri Aizarnatik pasatzen. Horren aurrean herritar batzuek trailerrak gelditu eta horretarako baimenik ez dutela adierazi diete. Alkatea herritarrekin bildu dela esan du. Araudiaren arabera, trailerrak ez dutela baimenik gogorarazi du alkateak, hiru ejeko kamioiak remolkearekin bai, GFA-ren arabera. Orain trailerrak Iraeta inguruan kargatzen dituztela adierazi du. Gaurko egunez bildu dela herritarren ordezkari batzuekin esan du. Arriskuak murrizteko aukera desberdinak aztertzen ari direla gehitu du. Aizarnako plazako mureteen artean hesiak jarri, seinaleak jartzea egur kamioiak dabiltzanean...

Mikelek egoera honek zenbat denbora iraun dezakeen galdegin du.

Alkateak bi eta bost urte bitartean erantzun du, beti ere uda izango delarik garai intentsoena.

Mikelek herritarren segurtasuna bermatu behar dela adierazi du eta neurriak hartu beharko direla.

Aitor Zuzuarregik adierazi du, Errezil aldera Benta Berri aldera kamioiak bidaltzea aztertu beharko dela.

Alkateak adierazi du beldur dela Aizarnako herritarren artean haserreak sortzeko bidea ez ote den ari zabaltzen.

Mikelek erantzun du, beharbada udalak bitartekari lanak egin beharko dituela.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

IDAZKARIA,

O.e.
ALKATEAK,